




# Albitzu



1930 alderako mapa (Bizkaiko Foru Aldundia)





Albitzu, 2004ra arte Arantzazuko udalerrian kokatua izan den enklabea dugu, Ibarroño eta Leitoki erreken bitartean, kaltzada errealañen aldamenean. Historikoki, bi base-rik eta euren lurrek osatzen zuten Albitzu: Albitzugoikoa eta Albitzubekoa, hain zuzen. XVIII. mendearren ondarretan, kaltzada ondoan, Zeberioko Isasi auzunetik gertu, Leitoki baseria eraiki zen, egun erortzear duguna.

Filologo bat baino gehiago mintzatu izan da Albitzu izenaren esanahiaz; hona bilduta, eta Kepa Perez Urrazarenetik hartuak (*Albitzu auzoa, Arantzazu jurisdikziopean eta Zeberion barneratutako enklabea*, 1996: 2), eritzioak:

Caro Barojarentzat (190, 103), latinerazko izen pertsonal batetik eratorria litzateke. 'Albicus' izen erromatarra jartzen du bere oinarrian, hau da, *Albicus* deitzen zenaren pertsona baten ondasuna lirateke Albitzu inguruko etxe eta lurrak. Iritzi berekoa dugu L. M. Mujika (1982, 260), latinerazko Albici *Albus*-etik datorrela dioenean.

Bestalde, Mixxelenak (1989, 43) bi esanahi proposatzen ditu: Bata, Caro Barojaren aritik, "que parece un patronímico" en *Albiz, Albiztegi, Albiztur, Albia...*; bestea, albitz 'heno': *Albisu, Albisua, Albizu...*

Jatorri erromatar hori aintzat hartuta, garai hartatik Albitzuk nolabaiteko izatea izan duela onartu beharko genuke. 1569ko uztailaren 17koan dugu Albitzu izena dakarren lehen agiri idatzia; bertan, Arantzazuko elizatekoa dela azaltzen da<sup>1</sup> (*Ibid. 3*):

En el lugar de **Albisu** que es en la anteiglesia de Aranzaú a diez y siete dias del mes de julio de mil quinientos sesenta y nueve años...

Auzo honen hedadurari buruzko agiri interesgarri bat dugu, 1889koan: Albitzu eta Leitoki baserrien eta berauen soloen mugariak ezartzen dira. Horretarako, "Arantzazuko eta Zeberioko Udaletxetako alkate, zinegotzi eta ordezkarriak biltzen dira eta herri bakoitzari dagokion mugen ezarpen-operazioa burutzen da (*Ibid. 18*)".

Hona aktaren kopia (*Ibid. 19-22*):

Amojonamiento de Albizu y Leitoki. Año 1889.

1.- Se dio principio en la divisoria de las heredades de la referida casería de Albizu y de D. Juan José de Ipiña, en la orilla Este del río que baja de Sarasola y llamado río Leitoqui, y en el ribazo situado sobre el referido río se colocó un mojón cortante en la dirección que indica la divisoria de las referidas heredades, o sea, próximamente de Sur a Norte, cuyo mojón como punto de partida se señaló con el número 1, y se le pusieron en su base como señal cascós de teja, las iniciales respectivas por las caras pertenecientes a cada jurisdicción y un cuadrado por el lado que mira a la parte de Ceberio, y la parte superior pintada de blanco.

2.- Siguiendo para arriba en la dirección que indica el mojón anterior a los 88 metros de distancia se colocó un angular, junto a un chaparro, situado dentro de las heredades de este término, con inclinación de 162 grados al N.E. poniéndole las señales así como al anterior y el correspondiente número, o sea, el 2.

3.- Continuando al N.E. con la dirección indicada por el ángulo anterior y pasando las heredades y un terreno jaral se llegó por fuera del vallado del referido jaro al punto

<sup>1</sup> Martin Albizu harotza Maria Ortiz Huandurraga-rekin ezkondua zegoen. Agiri honetan, Martin honek bere aitaginarreba izango den Juan Huandurraga zeberiotarrari sinatzen dion ordainagiria dugu.



## 4 Arantzazu: nor/zer... non

conocido con el nombre de Saconeta, cuyo punto dista 260 metros del mojón anterior, y en el cual se plantó un mojón angular con inclinación de 160 grados al N.E. quedando señalado con el número 3, y con los demás signos así como los anteriores.

4.- Siguiendo para arriba en la misma dirección y con la inclinación que marca el ángulo anterior a los 320 metros se llegó al punto de Bideauzeta próximo al vallado de los pertenecidos de la casería de Careaga donde se colocó un mojón angular cuyas direcciones forman ángulo de  $81 \frac{1}{2}$  grados hacia el N.O. poniéndole todas las señales como a los anteriores y el número 4.



5.- Siguiendo para abajo en la dirección indicada por el último ángulo hasta los 82 metros en este punto conocido con el nombre de Chavola-alde y donde tiene origen el arroyo de este nombre se colocó otro angular, cuya dirección anterior indica el curso del referido arroyo y que con loa posterior forma un ángulo de 137 grados hacia el N.E. poniéndole todas las señales como a los anteriores y el nº 5.

6.- Continuando para abajo el curso del arroyo referido en el número anterior a los 302 metros de distancia del mojón último se llegó al punto de reunión de este arroyo con otro que baja del término de Larrabarrendo y cuyas direcciones medias forman ángulo de 126 grados hacia el S.O. y continuando para abajo en la dirección de los dos arroyos ya reunidos en uno sólo hasta los 323 metros de distancia del referido punto de reunión, en este punto y sobre las orilla del lado Este del mencionado riachuelo se colocó un mojón cortante en la misma divisoria de los montes de D. Gustavo Cobreros y D. Juan José de Gorostiza y cuya dirección indica también la divisoria de los dos referidos montes; la dirección que indica este mojón con la que tiene el riachuelo hasta este punto forma un ángulo de 66 grados hacia el N.E. poniéndole al referido mojón las señales, así como los demás y el correspondiente número 6.


7.- Continuando para arriba en la referida dirección, o sea, por la misma divisoria de los



montes del Sr. Cobreros y de Gorostiza hasta los 43 metros, en este punto se colocó un angular con indicación de 107 grados al S.O. poniéndole todas las señales y el nº 7.

8.- Siguiendo la dirección indicada por el ángulo anterior hacia el S.O. y atravesando en parte el monte del Sr. Gorostiza a los 308 metros se llegó al límite Oeste de este monte en cuyo punto se colocó un angular con inclinación de 148 ½ grados al N.O., o sea, para el río, poniéndole a este mojón todas las señales correspondientes y el número 8.

9.- Prosiguiendo para abajo o hacia el río en la dirección indicada por el ángulo anterior a los 60 metros de distancia se llegó a la orilla del río donde se colocó un cortante con todas las señales correspondientes y el número 9; esta dirección con la que sigue el curso del riachuelo para abajo forma ángulo de 103 ½ grados en sentido inverso del ángulo anterior.



10.- Prosiguiendo para abajo el indicado curso del río a los 63 metros de distancia se encontró con el otro río que baja de la parte de Sarasola y próximo a este punto de reunión de los dos ríos está la casa llamada Leitoqui de la jurisdicción de Aránzazu y un poco más adelante y a la orilla opuesta otra casita perteneciente a la jurisdicción de Ceberio; en el referido punto de reunión de los dos ríos y sobre un ribazo se colocó un mojón cortante en la dirección del curso del primer río, o sea, hacia el N.E. al que se señaló con el número 10 y se pusieron todas las señales como a los anteriores mojones.

Prosiguiendo hacia arriba desde el punto de reunión de los dos ríos, o sea, al curso que tiene el río que baja del término de Sarasola a los 613 metros de distancia se llegó al punto donde se colocó el mojón señalado con el número 1. Y por tanto queda cerrado el polígono que comprende la línea divisoria de este término: el ángulo que forman las direcciones de los dos es de 104 grados. Todos los mojones quedan numerados como queda explicado con las iniciales C. y A. y un cuadrado a la parte de Ceberio; son de piedra gris a modo de arenisca y de un tamaño regular con sus testigos.

Sarrera labur honekin bukatzeko, derragun Albitzugoikoa eta Albitzubekoa etxaldeen Arantzazurekiko erabateko haustura 2004 gauzatu zela; bitartean, "Albitzu auzoko baserriek etengabeko lotura izan dute Zeberioko baserri askorekin. Sendi mailako harremanetan, alboko auzoko baserrietako seme-alabekin ezkondu izan dira Albitzu baserrietako jaubeak", historian zehar Albitzuko ugazabak Arantzazuko San Pedro parrokiaz



## 6 Arantzazu: nor/zer... non

gain, Santo Tomas parrokiko hilobietan lurperatzea agintzen zutela ahantzi gabe (*Ibid.* 22).

### Albitzubekoa, -a

(Baserria)

#### *Agiri bilketa:*

DJE-A, 17 01: Albizu vecoa

DJE-A, 17 01: Albizuvecoa

DJE-A, 17 06: Albizuri-becoa

El caserío rústico titulado Albizu vecoa, sin numeración, situado en jurisdicción de la anteiglesia de Aránzazu, señalado con el número 17, que ocupa una planta solar, con inclusión de lo que cogen sus aleros, de 2.989 pies, que hacen 231 metros cuadrados superficiales, y el que se compone de paredes de mampostería y está destinado a la labranza, confinante por todos sus aires con sus pertenecidos.

Hitzaren esanahia: *Albitzu eta behe hitzak, -ko leku genitiboa eta artikuluaz osatutakoa.*

#### *Lurrak*

#### *Beresizargoiena, -a Ibarrondo (basoa)*

DJE-A, 17 01: Beresisargoyena-Ybarrondo

DJE-A, 17 06: Berecисargoyena Ybarrondo

El monte llamado BERECIZARGOYENA IBARRONDO, que comprende 47.561 estados, que equivalen a 181.158 metros cuadrados superficiales de cabida.

Confinantes estos dos montes<sup>2</sup>, por Sur, con camino carretil; y por Sur, Oeste y Norte, con montes de don José Joaquín de Careaga.

Osagaiak: *beresi* hitza ‘jaro, jaral’ adieraz; *zahar* hitza, *goi-ren*<sup>3</sup> superlatiboa eta artikulu, ‘el jaro viejo más alto’ adierazi nahiko luke. Bigarrenaren osagaiak *ibar* hitza eta *ondo* (*inguru*) posposizioa ditugu.

#### *Albiste historikoa*

**1956** Uztailak 26. Baso honetatik, 175.558 metro karratutako zati bat banatzen da, aurrerantzean Erregistroko 138 finka izango dena (*DJE-A, 138-01*).

Rústica. Trozo del monte titulado BERESISARGOYENA-YBARRONDO, en jurisdicción de Aránzazu, que mide 175.558 metros cuadrados, y linda, al Norte, con arroyo y monte de don José Gorostiza; al Este, con más del señor Añibarro, antes de Careaga; al Sur, con camino carretil y parte de donde se segregó, y al Oeste, con riachuelo y heredad Leitoqui. Procede por segregación de la finca número 17.

**1972** Maria Dolores Cobreros Garatek Lukas Añibarro eta Jose Maria Uriari saltzen die

2 Hau eta *Sinsubichi* izenez ezagutua.

3 “...y goien ‘(la) de más arriba’” (Belasko, 1999: 252).



baso hau (*DJE-A*, 138-02).

**Kaminondoa, -a** (*lursaila*)

*DJE-A*, 17 01: Camino-ondoa

La heredad denominada CAMINO-ONDOA, que comprende 4.462 estados de terreno labrante y 823 estados de ribazos, que son 5.285 estados, que equivalen a 21.104 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Oriente, con heredades de don Lorenzo de Erézcano y don Juan Antonio de Ipiña; por Norte, con jaro del mismo caserío; por Oeste, con casa y heredades de don José Joaquín Careaga, y por Sur, con un arroyo.

Hitzaren esanahia: *camino (bide) + ondo + artikulua*.

**Etxeostea, -a** (*lursaila*)

*DJE-A*, 54 01: Echeostia

La heredad nombrada ECHEOSTIA, que comprende 552 estados, que equivalen a 2.099 metros cuadrados superficiales de cabida, y la que está en parte labrante y parte inculta; confinante, por Mediodía, con terreno de don José Joaquín de Careaga (*gainean, arkatzez idatzita: 'y el horno de la expresada casa'*); por Este, con caminos y con el mismo caserío de Albizu vecoa; por Norte, con un arroyo, y por Oeste, con camino que dirige desde la casa de Albizu para la iglesia parroquial de Ceverio.

Hitzaren esanahia: *etxe + oste + artikulua: etxearen atzeko partea*.<sup>4</sup>

**Horno** (*laba*)

*DJE-A*, 296 01: Horno

Horno al sitio de Echeostia, en el barrio de Albizu, en jurisdicción de la anteiglesia de Aránazu, de 9,75 m2. Linda, Norte, Este y Oeste, heredad de Echeostia, de Nemesia Gorrotxategi, y Sur, camino Albizu.

**Txarko** (*landa*)

*DJE-A*, 17 01: Charco

La campa llamada CHARCO, que comprende 72 estados, que hacen 277 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Norte, con un arroyo; por Oeste, con camino, y por Este y Sur, con terrenos de don José Joaquín de Careaga.

**Landa** (*landa*)

*DJE-A*, 17 01: campa

Otra pequeña campa que está al lado de la casa, que comprende 62 estados, que equivalen a 235 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Sur y Oeste, con la misma casería de Albizu vecoa; por Norte, con terreno de don José Joaquín de Careaga, y por Oeste y Norte, con caminos carretilles.

4 “-oste ‘parte trasera’: *Elexoste, Ortuoste, Urioste...* En topónimia, *oste* es exclusivamente occidental y aun en esta zona da la impresión de ser de introducción más tardía que el común *gibel*” (Mitxelena, 2011: 134).



## 8 Arantzazu: nor/zer... non

### **Landa** (*landa*)

DJE-A, 17 01: campa

Otra campa que está junto al horno del caserío, que comprende 14 estados que equivalen a 53 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Oeste, con terreno de don Joaquín de Careaga y por Norte, Sur y Este, con terrenos del mismo caserío de Albizu vecoa.

### **Landa** (*landa*)

DJE-A, 17 01: campa

Otra campa que está junto al puente, que comprende 37 estados, equivalentes a 140 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Norte, con un arroyo, y por Sur, Oeste y Este, con terrenos de don Juan Antonio de Ipiña.

### **Lursailak** (*lursailak*)

DJE-A, 17 01: heredades

Las heredades que están junto a LEITOQUI, que comprenden, con inclusión de lo que tienen inculto, ribazos y zanjas, 1.862 estados, que hacen 7.830 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por hacia la parte de entre el Sur y el Este, con un arroyo; por Este, Norte y entre Oeste y Norte, con terrenos de la misma casería de Albizu vecoa.

### **Sastraka** (*sastraka*)

DJE-A, 17 01: jaro

Un jaro (arkatzez ‘a continuación de las heredades’) que comprende 1.938 estados, que equivalen a 7.372 metros cuadrados superficiales de cabida; confinante, por Sur y Este, con jaros de las heredades de don José Lorenzo de Erézcano y con heredades del mismo caserío de Albizu vecoa, y por Norte y Oeste, con jaros de don José Joaquín de Careaga.

### **Zintzurbitzu/txu (?) (basoa)**

DJE-A, 17 01: Sinsubichi

DJE-A, 295 01: Sinsurbichu

El monte castaño llamado SINSUBICHI, que comprende 770 estados, equivalentes a 2.928 metros cuadrados superficiales de cabida.

Hitzaren esanahia iluna egiten zaigu. Ez dakigu ez ote den *txintxur* hitzaren irakurketa-ren bat. Mitxelenak (2011: 143) *txintxur* hau “(de *zintzur*) ‘garganta’ ‘garganta, pasaje angosto entre dos montañas’, ‘cima, cumbre’ (en Iztueta): *Chinchurreta*” dela diosku; eta amaierako -*txi* hori toponimian horren erabilia den -*tzu* atzikia zein -*txu* txikigarría litezke. Izan ere, Jabegoko irakurketetako bat *Sinsurbichu* dugu. **(t)zintzurbitzu/txu**, agian?

### **Albiste historikoa**

**1606** Iñigo Undurraga zordun nagusia, eta Juan Gorostiza eta Juan Albizu (Patxi Albizu-ren semea) bermari lez, hirurek elkarrekin diru-zentsua sortzen dute elezkabildoaren alde, eta horretarako bakoitzak bere baserria eta ondasun guztiak hipotekatzen ditu: Undurraga, Gorostiza eta Albizu (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.* 11).



**1635** Juan Albizu eta Maria Gesala ezkontideek zordun nagusiak, eta Juan Garibi Etxebarri eta Martin Sarasola Albizu bermari lez, hirurok 200 dukateko diru-zentsua sortzen dute Arteako auzakide den Iñigo Albizu Ibarra eskribauaren alde, eta horretarako, bakoitzak Arantzazuko Albitzu, Zeberioko Etxebarri eta Arteako Sarasola baserriak eta ondasun guztiak hipotekatu zituzten (*Ibid.*).

Ondorengo urtetan, Juan Albizu eta Maria Gesala bikoteak hainbat diru-zentsu sortuko dituzte, Albizubekoa baseria guztiz hipotekatuz. Esaterako:

- 1640-IX-2 1.ean: Martin Barañano Etxebarria zeberioarraren alde, 220 dukat.
- 1640-IX-28an: Pedro Amorrortu arantzazuarraren alde, 140 dukat.
- 1650-VII -8an: Igorreko Txomin Lopez Egiaren alde, 100 dukat, gero beronek, Villaroko Santa Isabel Konbentuari traspasatzen diolarik.
- 1653ean: Arteako Pedro Etxezarragaren alde, 135 dukat.
- 1654-VIII-28an: Juan Zabalaren (Zabale Goikoa?) alde.

Beraz, Albizubekoa baseria, kredituz josita gelditu zen (*Ibid.*).

**1640** Domingo Landaida eskribauaren lekukotasunpean garatzen den txostenean, Juan Albizu eta Maria Gesala ezkontideek auzi luzea dute Juan Agirre Olarte defuntuaren alarguna den M<sup>a</sup> Ibañes Albizuren aurka (*Ibid.*).

**1654** Aurreko diru-zentsu edo kreditu horren ordainketa eza dela eta, zortzi urte iraungo duen pleitu baten notizia dugu, Landaida eskribauaren ardurapean burutua. Pleituaren historia laburtua hau da: 1654ko abuztuaren 27an, Artean auzakidetua zegoen Juan Agirre Olarteren emazte zen M<sup>a</sup> Ibanes Albizu, goian aipatutako Iñigo Albizu eskribauaren alabak, Juan Albizu eta Maria Gesala ezkontideek sortu zuten diru-zentsuaren erreditoak kobratzeko auzitan jartzen ditu, Albitzu baserriaren jaubeak. Bizkaiko Jaurerriko Korregidore zen F. Salazar Velasco Jaunak, Albitzu baseria enbargatzea agintzen du, eta Arratiako Merindadeko Teniente de Merino kargua zuen Martin Zuazok, Juan Agirreri, Albitzu baserriaren ukantza luzatzen dio, ez jabetza, usaba Juan Albizu eta Maria Gesala bikotea baitzen. Ikus dokumentua:

#### ***Posesión de los bienes muebles y raíces de la casa de Albisu (folio 60)***

En las casa de Albizu de la Anteiglesia de Arançasu a quince días del mes de abril de mil y seiscientos y cin-/ quenta y cinco años ante mi el presente escribano y tes-/ tigos, de requerimiento de Juan Aguirre Olarte que/ está presente y en virtud del mandamiento de pago/ y posesorio de suso, y de esta otra parte y por la cantidad/ en el contenido décimas y costas, Martin de/ Cuaço Teniente de Merino en esta Merin-/ dad de Arratia dio posesión al dicho Juan de/ Aguirre ( ) en bienes de Juan de Alvissu y/ María de Guesala su mujer, principales/ deudores en dos arcas, una arteza, en/ una cama y en una cuba de enbasar sidra/ y en una troja grande que eran los/ bienes muebles que se hallaron en la/ dicha casa ....

Zortzi urte beranduago, auziaren arazoa gehiago konplikatzeko, Iñigoren beste alaba bat, M<sup>a</sup> Antonia de la Cruz Albizu, Areatzako Santa Isabel Konbentura monja sartu zen; eta, dotetzat, Juan Albizuren aurka zeuzkan 200 dukatak eramatzen ditu. Konbentuko nagusia, Ana de Santo Domingo Ugalde abadesak, boterea luzatzen die prokuradore batzuei, Juan Albizuk zituen zorrak kobra ditzaten aginduz. 1662an, Patxi Albizu Gesala, Albitzu baserriko oinordeko da, baina ondorengo urtetan honen anaia den Juan Albizu Gesala agertuko zaigu (*Ibid.*).

**1677** Patxi Albizuk diru-zentsua sortzen du eta Albitzu baseria hipotekatu (*Ibid. 13*).



## 10 Arantzazu: nor/zer... non

**1692** Juan Albizubekoak eta Juan Ugarte Albizuk, Arantzazuko Albitzu auzoko solo eta ondasunez differentziak dauzkate, eta konponketa batera heltzen dira (*Ibid.*).

**1704** Urte honetako fogerazioan **Albizu de yuso** baseria agertzen zaigu. Juan de Garraui (Garibi) Albisu dugu ugazaba eta fogera osoa ordaintzen du.

**1704** Juan Albizu Eguzkiza eta Maria Argiñano Etxebarria Artetxeren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan Albizu eta Maria Eguzkiza gurasoek, Juan semeari dotetzat honakoa ematen diote: Arantzazuko Albitzu baseria eta bere ondasun guztiak: soloak, sagasti, gaztañadi, harizti, berezi, hortu eta labea, eta etxeko ajuar, menaje eta soloko erreminta guzgia, eta baserriak duen ohore, eskubideak eta eleizako aulkia eta hilobia. Horrez gain, ahuntzburuen erdia, 4 ardi eta beren kumeak, eta behintxa emana.

Ezkonberri gazteei honako baldintza edo kondiziño multzo hau jartzen diote: usufrutuaren erdia beraientzat gordetzen dute, hileta eta ehorzketa eskubidea, 3 kutxa eta arteza, eta kutxa bat egiteko haritz edo gaztainondo bat. Eta azkenik, Albitzu baserriak dituen diru-zentsuen ordainketa: 300 dukat Areatzako Santa Isabel Konbentuaren alde, eta 100 dukat Patxi Bildosolaren alde. Albitzu baserriko eskubidetik beste seme-alabak aldentzen dituzte: Jazinto, Patxi, Pedro eta Margarita Albizu Eguzkiza. Eta beste aldetik, Pedro Argiñano Etxebarria eta Katalina Artetxe ezkontideek Maria alabari dotetzat zera ematen diote: 200 dukat gehi arreoa: behi bat bere txahalagaz, ohea lau bider jantzia, Maria bera 3 aldiz jantzia eta bi kutxa, eta dote eta legitima hauvekin, Argiñano Etxebarria baserritik eta gainerako ondasunetatik aldentzen dute (*Ibid.*).

**1738** Juan Garibi Eguzkiza eta Maria Argiñano ezkontideek, zordun nagusi, eta Juan Ibarrondo Orbezua gaztea bermari legez, hirurek elkarrekin, 120 dukaiko zentsua sortzen dute, eta horretarako, hurrenez hurren, nork bereak diren Albitzubeko baseria, Orbezu Txikerra baseria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte (*Ibid.*).

**1742** Arantzazuko auzakide den Juan Albizuk, berea den Albitzu baserriaren Ibarrondo-errekkako basotik 93 ikatz karga egiteko haritz eta gaztain egurra saltzen dio Jose Xabier Aldama Ugalderi (*Ibid.*).

**1745** Urte honetako fogerazioan **Albisu** baseria dugu. Ugazaba Juan Garibi Albisu dugu eta fogera osoa ordaintzen du.

**1745** Juan Garibai Albizuk bere anaiorde den Pedro Garibairi, Arantzazuko Albitzu baserriko gela bat eta korta-zatia alokatzen dio, 9 urtetarako eta 10 dukat urteroko errentan (*Ibid.*).

**1748** Maria Argiñano Etxebarriaren testamentua. Arantzazuko Juan Albizuren alargunda, eta Albitzu bere baserriak duen hilobian lurperatzea eskatzen du. Zazpi seme-alaba ditu: Maria, Josefa, Magdalena, Antonia, Juan, Pedro eta Patxi Albizu Etxebarria. Antoniari soloetan ereinda duen lihoaren erdia uzten dio. Juan senarra zenaren boterea duelarik, Juan semea oinordeko izendatzen du eta beronek Pedro eta Patxi anaiei 60 dukat bana emango die. Antoniarentzat 70 dukat ematea agintzen du, Magdalenari 30, Patxiri behia eta txahala, Pedrori behintxa eta txahala, Antoniari bi aharito, 2 ahuntz umeekin eta etxeen dagoen lihozko erropa guzgia (*Ibid.*).



**1749** Juan Albizu Argiñano Etxebarria eta Maria Etxebarri Urrazaren arteko ezkontza kontratua. Alde batetik, Arantzazun auzakidetuak zeuden Juan Albizu eta M<sup>a</sup> Argiñano Etxebarria ezkontide defuntuak Juan gaztearen gurasoak ziren. Juan honek dotetzat Albitzu baseria eta etxaguntza guztiak eramatzen ditu eta, horrez gain, idi parea, 19 ahuntz, 8 ardi, eta nekazal lanbiderako erramintak. Eta beste aldetik, Juan Etxebarria eta Pantxike Urraza ezkontideek Maria alabari dotetzat 170 dukat dirutan, erlauntza bi eta txahala ematen dizkiote (*Ibid.*).

**1752** Apirilak 6. Juan Garibai Albizuk, Albitzu bere baserriko basoetatik 215,5 ikatz-karga emango dizkiola adosten du, Zubibarriko olaren usaba den Jose Xabier Aldama Ugalderi datorren San Migel eguna orduko. Ikatz-karga bakoitzeko 4,5 erreal delarik, danetara 967,5 erreal ordaintzen dizkio Aldamak Juan Garibairi (*Ibid.*).

**1754** Pedro Garibai Albizu eta Catalina Aldekoa Urteagaren arteko ezkontza kontratua. Eta Juan Garibai Albizuk, anaia naturala den Pedro Garibai Albizuri Albizu baserriko gela eta korta zatia errentan ematen dizkio, 9 urterako eta 10 dukat urteroko errentapean (*Ibid.*).

**1759** Juan Garibi Albizu Etxebarria Argiñanoren testamendua. Maria Etxebarri Urrazagaz ezkondua dago eta Albitzubekoa baserriak Arantzazuko eleizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du. Adin gitxiko hiru seme-alaba uzten ditu: Juan, Luisa eta Dominika Garibi Etxebarria.<sup>5</sup> Juan Etxebarria Mariaren aita dela agertzen da. Testamendi legez pertsona hauek izendatzen ditu: Pedro Argiñano Etxebarria bere lehengusua, Pedro Garibai Albizu anaia eta bere emaztea; hiruron artean, beren seme-alaben artean oinordeko izenda dezaten aginduz.

1759ko ekainaren 9an Albitzu baserriko ondasunen lerrokapena egiten da. Honela dio dokumentuaren zati baten transkripzioak:

En la casa y casería de Albizu de esta Anteiglesia de Aran-/ zazu mortuoria de Juan de Garibi Albizu ya difunto a nueve/ días del mes de Junio, año de mil setecientos y cincuenta y nue-/ ve ante mi el escribano real de su Magestad, y testigos al fin escritos, pa-/recieron presentes Pedro de Garibi Albizu y Pedro de Eche-/ varría Arguiñano vecinos de dicha Anteiglesia y Valle/ de Zeverio, y dijeron que en el testamento bajo de cuya dis-/ posición falleció el dicho Juan de Garibi Albizu les había de-/ jado por tutores y curadores de Juan, Luisa y Dominica de/ Garibi Echevarri sus hijos habidos de María de Echeva-/ rri su legítima, y estaban determinados de poner por invent-/ tario legítimo todos los bienes muebles y raíces que quedaron/ por fin del dicho Juan, pertenecientes a dichos sus hijos menores/ para que en todo tiempo conste como también las deudas/ que dejó el dicho Juan, y habiendo invocado ante todas cosas/ el misterio de la Santísima Trinidad Padre, Hijo y Espíritu San-/ to tres personas distintas y un solo Dios verdadero, bajo del/ juramento que voluntariamente hicieron en forma/ debida de derecho prometieron de hacer dicho inventario de bie-/ nes sin ocultación alguna, que es como se sigue = Prime-/ ramente inventariaron esta dicha casa y casería de! Albizu y todos sus pertenecidos, item cinco arcas las tres/ de ellas con sus cerrajeras y llaves y las otras dos sin ellas-/ Item, dos calderas de cobre, item otra calderilla de fruslera, / dos pares de layas, dos azadas medianas y otra mayor/ un cepo de hierro, dos hachas, un arado, un rastrillo, / una cadena de hierro de acarreo, dos artezas, unos/ lares y un fierro de cosina, una pala de fierro, un ban-/ co largo, unas pessas, dos camas compuestas, la una/ de plumeon colcha y travesera, y la otra de un ( ) y travesera, una olla de fierro, seis escu-/ dillas de barro, tres platos de barro, una zarran-/ cha, una tranga vieja, una mudanza de cama, ... (ZUA, 45. Karpeta).

1759ko urte eta Albizu baseria beretan, Pedro Garibi Albizuren emazte den Katalina Aldekoa Urteagaren testamendua. Urteaga baserriak duen hilobian lurperatua izatea

5 Beste bi seme-alaba ere izan zituzten, Juana eta Miguel (*BEHA\_ja*), hilak dirudienez.



## 12 Arantzazu: nor/zer... non

eskatzen du. Alaba bat uzten du: Maria Garibi Aldekoa (*Ibid.* 14).

**1772** Juan Garibi Albizu<sup>6</sup> eta Maria Ituiño ezkontideak dira, eta hura Juan Garibi Albizu eta Maria Etxebarria ezkontideen semea delarik, aitak ezkontzarako 250 dukat eman zizkion, eta Albitzubekoa baserritik aldendu zuen (*Ibid.* 16).

**1785** Bizkaiko Jaurerriko Gobernuaren agindu bati erantzun emateko, urte honetan, Errege-baso, komun eta jabedunei egiten zaie bisita; euren artean, Albitzubekoa etxal-dekoei (*MONTES\_REG1\_LEG2*). Bartolome Barañano dugu etxaldearen ugazaba.

Consiguiente reconocieron las jurisdicciones de la casa y casería de **Albizubecoa** propia de Bartholome de Barañano, y en ellas reconocieron y hallaron catorce arboles robres que tienen otras tantas bandas de buena calidad y condición, y tienen las mismas leguas y camino que las precedentes primeras.....

**1796** Urte honetako fogerazioan **Albizubecoa** baseria datorkigu: Bartolome Barañano da ugazaba, bera eta amigarreba alarguna bizi dira, eta fogera eta erdi ordaintzen ditu.

**1799** Oraingo hau etxalde bakoitzaren ondasun eta emaitzen estadística dugu (*PRO-PIOSYARB\_REG2*). Bartolome Barañano da ugazaba.

Yo Bartholome de Barañano, dueño y administrador de la Casa y pertenecidos de **Albizubecoa**, declaro bajo de juramento que su rendimiento anual en dinero graduó cincuenta ducados y en carbón ciento doce reales, son seiscientos sesenta y dos = tiene contra si nobecientos ducados de Censo Capital, los doscientos ochenta en favor del Combento de Religiosas de Santa Ysabel de Villaro = y los ochenta al Cavildo Ecco. de esta Anteyglesia al 3 p% 0297 reales..... 0662

**1802** Juan Antonio Barañanok, 1635. urtean Juan Albizu eta Maria Gesala ezkontideek sortutako 100 ducat-zentsua, eta 1738ean Juan Garibi Eguzkiza eta Maria Argiñano ezkontideek sortutako 120 ducat-zentsua, biak ordaindu eta horrela Albitzubekoa baseriaren hipoteka askatu egiten du (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.* 5).

**1808** Arantzazuko auzakideak diren Bartolome Barañano eta Luzia Garibi<sup>7</sup> ezkontideek Juan Antonio Barañano Garibi semeari Albitzubekoaren baserriaren erdia uzkuntzan ematen diote, berau Josefa Ugaldegaz ezkondua baitago 1802 urteaz geroztik (*Ibid.*).

**1808** Juan Antonio Barañano honek Zeanuriko Juan Jose Ipiñazarri ematen dio errengan, 9 urterako, Albitzu baserri erdia (ZUA. 87. Karp. 1808-12. *Pedro Donato Ibarreta*).

... Juan Antonio de Barañano... dueño legitimo de la Casa y Casería titulada de Albizu y sus pertenecidos notoria en la misma Anteyglesia, y Dijo que da en Arrendamiento a Juan Joseph de Ypiñazar vecino de la Anteyglesia de Ceanuri la mitad de dha su casa de Albizu, esto es un Quarto o Alcoba, mitad de la Camara, mitad del Corral, con el uso y servicio de la Sala, Cozina y demás servidumbres para sus menesteres; mitad de la heredad mayor de abajo, mitad de la heredad de arriba, y por entero la nombrada Sagasti,

6 1750-03-16an jaioa, Juan Garibi de Albizu Echebarria de Arguiñano eta Maria Echebarria Urrazaren seme (*BEHA\_ja*).

7 1751-08-25ean, Agueda Garibi de Albizu Echebarriaren jaiotza (*BEHA\_ja*). Oharretan, esaten zaigu "Asentada al margen como Luissa de Garibi". Ematen du, bada, Luisa dela, ez Luzia.



que se halla a la parte Zagüera de la otra casa propia de Juan Martin de Careaga, con su porción de tierra para huerto en la heredad llamada de arriba; y mitad de furtas de Castaña, manzano y demás por tiempo y espacio de nuebe años que empiezan a correr y contarse desde el día de todos los santos primero de Nobiembre del año próximo venidero de mil ochocientos y nuebe y finaran víspera de otro igual dia y mes de mil ochocientos y diez y ocho, por la renta en cada uno de treinta y cinco ducados, que hacen reales trescientos ochenta y cinco de la misma especie, vajo de la condiciones siguientes: Que el mencionado Juan Joseph de Ypiñazar le tiene que satisfacer puntualmente la renta acordada... con mas el regalo de la ----- con dos Capones y demás según costumbre. Que cuidara, gobernará y beneficiara dha mitad de casa y tierras arrendadas con el esmero y vigilancia devidos... para cuio efecto ha de poder recoger oja en sus montes o en lo que le señalase...

Que fenecidos los citados nuebe años de este arrendamiento ha de desocupar enteramente dha mitad de casa y tierras arrendadas sin necesidad de requerimiento ni otro aviso de su dueño y entregar a este todas las llaves interiores y exteriores de sus puertas según las recibiere, para que el nuevo inquilino pueda entrar a habitar y ocuparlas...

**1825** Censo de Policía delakoaren garaian, **Albisubecoa** baserrian bi etxebizitza daudela ematen du. Batean, Juan Antonio Barañano, 52 urte; emazte Josefa Ugalde, 52 urtekoa hau ere, dimarra, 24 urte Arantzazun daramatzana; eta alaba María Barañano, 20 urtekoa. Bestean, 9 urtez Arantzazun, Manuel Erezcano, 50 urtekoa; emazte María Antonia Zabala, 36 urtekoa; eta María Antonia Erezcano, 10 urtekoa. Hirurak ere zeberioarrak.

**1850** Apirilak 12. Albitzubekoa etxaldearen salmenta: Antonio Rosado Castaños-ek etxaldea erosten dio Inazio Barañanoren alarguna den Josefa Euba eta seme-alaba Rufino eta Julianari<sup>8</sup> (*DJE-A, 17-01*).

**1865** Uztailak 15. Antonio Rosado hil egin da eta finka hau bere loba María Isabel Rosado Real-en izenean inskribatzen da. María Isabel hau Gustavo Cobreros-ekin dago ezkondua (*DJE-A, 17-02*).

**1902** Ekainak 26. María Isabel 1870ean hil da eta, orain, finka euren seme-alaba María Encarnación, Gustavo, Florencio eta Leonardo María Valentín Cobreros Rosadoren izenean inskribatzen da (*DJE-A, 17-03*).

**1902** Uztailak 2. 4 neba-arreba eta euren senar-emazteok Lazaro Garate Llagunori saltzen diote Albitzubekoa (*DJE-A, 17-04*).

**1915** Azaroak 13. Lazaro Garate aurreko urtean hil da eta orain bere arreba Dolores izendatzen dute oinordeko. Gustavo Cobreros Rosado-rekin dago ezkondua Dolores (*DJE-A, 17-05*).

**1935** Abenduak 3. Dolores Garate alargunak Dolores Cobreros Garateri (bere alaba?) saltzen dio Albitzubekoa (*DJE-A, 17-06*).

**1955** Abenduak 30. Dolores Cobreros Garatek Domingo Gorrotxategi Sagardui eta Marigita Beldarraini saltzen dio Albitzubekoa (*DJE-A, 17-07*).

8 Honek esan nahi du, 1825etik 1850era bitartean, etxalde honen jabetza Juan Antonioren eskutik Inazio anairenenera pasatu dela.



## 14 Arantzazu: nor/zer... non



Margarita Beldarrain eta Domingo Gorrotxategi (Atutxa 1996: 3.1)

**1994** Uztailak 18. Albitzubekoa etxalde osoa segregatu egiten da eta, bertatik, bost finka berri sortuko dira, Erregistroko 291, 292, 293, 294 eta 295, Gorrotxategitarren artean banatuak (*DJE-A, 17-01*).

**2004-2007** Albitzubekoa, Albitzugoikoa eta Leitoki bezalaxe, Zeberioko udalerrira pasatzen dira.

### **XIX-XX mendeetako historia laburra (Perez Urraza, Albitzu auzoa...):**

XIX. mendean, Arantzazu eta Zeberio herrien arteko mugarrien ezarpenena zehazten duen dokumentuak dion legez, Albitzubekoa eta zenbait baso Gustavo Cobreros jau-narenak ziren.

Mende honetan, Cobreros familiarri, Txomin Gorrotxategi Sagardui eta Margarita Beldarrain Artetxe ezkontideek erosi zioten Albitzu baserriko ondasun multzoa. Gorrotxategi zein Beldarrain abizenak, biak Gipuzkoatik datozi, lehenengo Zegamatik, eta bigarrena Aia herritik. Harotz lanbidean zebilen Jose Joakin Gorrotxategi, eta Gorozitu auzoko Matxinena baserriko oinordeko zen Maria Bazterretxe Etxebarriagaz ezkondu zen. Hauen seme bat Manuel, Ametzolako Balentina Solatxigaz ezkondu zen, berau lehen ezteietan, Ametzola Goiti baserriko jaube zen Patxi Antonio Rekalde Isasigaz ezkondua. Berauen semetariko bat Txomin, Albitzu baserrira ezkondu zen Margarita Beldarrain Artetxegaz.

Bestalde, Antonio Beldarrain Aldebaldetrekuren anaia zen Ignazio, Solatxiko auzoko Urrutza baserriko oinordekoa zen Benita Idirin Aldekoagaz ezkondu zen. Antonio berri, Ugarte auzora, eta honen seme zen Txornin, Albitzu baserrian bizi zen Ramona Artetxegaz. Berauen alaba Margarita Beldarrain Artetxe, esan bezala, Txomin Gorrotxategi Sagarduigaz ezkondu zen.

### **Genealogia**

1565: ----- (Perez Urraza, *Olabarrieta elizateko eta Zeberio haraneko auzokideen zerrendak*, 2015b: 64)

Martin Albizu, harotz & Marina Ortiz Undurraga





Martin Albizu Undurraga  
Juan Albizu Undurraga  
Mª Ibanes Albizu Undurraga  
Katalina Albizu Undurraga  
Mª Otxoa, suhia da

**Ezkontza Zeberion (BEHA\_ez):**

1611-04-02 Joan Albisu & Maria Guesala Barañano

**Jaiotzak Arantzazun (BEHA\_ja):**

1612-10-11 Joan Albiçu Guesala  
1614-09-12 Ynigo Albisu Guesala  
1620-12-22 Joseph Nicolas Albisu Guesala  
1623-01-14 Francisco (Patxi) Albisu Guesala

**Ezkontza Arantzazun (BEHA\_ez):**

1642-05-05 Martin Albisu Ugarte Uribarri & Cathalina Albisu (Albisu) Olarra

**Jaiotzak Arantzazun (BEHA\_ja):**

1643-06-15 Martin Albisu Albisu  
1646-10-04 Francisca Albisu Ugarte Albisu  
1650-12-18 Catalina Albisu Albisu  
1654-08-09 Pedro Albisu Ugarte Albisu  
**1657-10-27 Joan Albisu Ugarte Albisu**  
1660-04-30 Martin Albisu Ugarte Albisu  
1664-05-04 Maria Albisu Ugarte Albisu

**Ezkontza Arantzazun (BEHA\_ez):**

1677-09-27 Joan Garibi Alvisu & Maria Egusquiça Mimenza Uria

**Jaiotzak Arantzazun (BEHA\_ja):**

1679-05-10 Joan Gariby Eguzquizamimenza  
1681-08-16 Jacintho Garivi Eguzquizamimenza  
1684-08-06 Francisco Garibi Alvisu Eguzquizamimenza  
1690-01-01 Margarita Garibi Egusquizamimenza  
1694-01-25 Pedro Garibi Egusquizamimenza

**Ezkontza Zeberion (BEHA\_ez):**

1704-06-09 Joan Garibai Albisu Mimenza & Maria Echavarria Arteche Arguiñano

**Jaiotzak Arantzazun (BEHA\_ja):**

1712-11-20 Francisca Albisu Echevarria Arguiñano  
1715-02-12 Magdalena Albisu Garybi Echevarria  
1716-12-28 Antonia Albisu Egusquiza Echebarria Arguiñano  
**1719-02-01 Juan Albisu Gariby Echevarria Arguiñano**  
1721-08-06 Ysabela Algisu Egusquiza Echebarria Arguiñano  
1722-09-24 Pedro Albisu Gariby Echevarria Arguiñano  
1724 Patxi Garibai Albizu Etxebarria (Perez Urraza, auzokideen zerrendak... op. cit. 162)  
Josefa Garibai Albizu Etxebarria (*Ibid.*)

**Ezkontza Zeberion (BEHA\_ez):**

1749-05-12 Juan Garibi Alvizu Echevarria Arguiñano & Maria Echevarri Urraza Uriondo

**Jaiotzak Arantzazun (BEHA\_ja):**

1750-03-16 Juan Garibi de Albisu Echevarria  
1751-08-25 Agueda\* Garibi de Albiú Echevarria  
\*Asentada al margen como Luisa de Garibi  
1754-06-16 Juana Garibi de Albisu Echevarria  
1756-04-25 Miguel Garibi de Albisu Echevarria  
1758-09-25 Dominica Garibi de Albisu Echevarria

**Ezkontza Arantzazun (BEHA\_ez):**

1772-12-21 Luisa Garibi Echevarria & Barttolome Barañano Azaola



## 16 Arantzazu: nor/zer... non

Jaiotzak Arantzazun (*BEHA\_ja*):

1773-03-30 **Juan Antonio Barañano Garibi**

1775-08-07 Adrian Barañano Garibi

1779-07-30 **Ygnacio Barañano Garibi**

**1825 Censo Policía:** Juan Antonio Barañano – Josefa Ugalde

Santiago Barañano Ugalde, 1804 (*Perez Urraza, auzokideen zerrendak... op. cit.* 253)

Maria Barañano Ugalde, 1805ean jaioa

Manuel Erezkano Pikaza, 1775 (Zeberio) & M<sup>a</sup> Antonia Zabala Ibarrondo, 1790  
(*Perez Urraza op. cit.*)

[Manuel Elezkano Zabala, 1807] (*Ibid.*)

M<sup>a</sup> Antonia Elezkano Zabala, 1815 (*Ibid.*)

**1850 DJE-A, 17-01:** Josefa Euba, Ygnacio Barañano Garibi-ren alarguna. Seme-alaba: Rufino (1810-07-20an jaioa Bilbon) eta Juliana Barañano Euba.

Gustavo Cobreros Jaunarena.



**Perez Urraza, auzokideen zerrendak...:**

1870: Migel Artetxe Aurtenetxe, 1839, *errentadore* & Lorenza Iturriaga Gurtubai, 1943 (Arant.) (291 or.)

Ramona Artetxe Iturriaga, 1860

Estefana Artetxe Iturriaga, 1870

[Santiago Abasolo Arriortua, jabe & Maria Barañano Ugalde

Maria Antonia Abasolo Barañano, 1827]

1900: Txomin Beldarrain Goti, 1866 & Ramona Artetxe Iturriaga (331 or.)

Migel Beldarrain Artetxe, 1893

Txomin Beldarrain Artetxe, 1895

Manuel Beldarrain Artetxe, 1898

1924: Txomin Beldarrain Goti, 1866 & Ramona Artetxe Iturriaga (defuntu) (375 or.)

Margarita Beldarrain Artetxe, 1901

Txomin Gorrotxategi Sagardui & Margarita Beldarrain Artetxe

Nemesia Gorrotxategi Beldarrain & Pedro Idirin Urkiza

Pedro Jose Idirin Gorrotxategi

Karlos Idirin Gorrotxategi

Esther Idirin Gorrotxategi

M<sup>a</sup> Jesus Idirin Gorrotxategi



## Albitzugoikoa, -a

(Baserria)

*Agiri bilketa:*

Fog. 1704: Albizu de suso  
Fog. 1745: Albisua  
Fog. 1796: Albizugoicoa  
DJE-A, 113 01: Albizu

Rústica. Caserío titulado ALBIZU, sito, con todos sus pertenecidos, en la anteiglesia de Aránzazu; está distribuido para dos colonos, con su correspondiente antuzano y en su frente una pajera y un horno para cocer pan. Confina, por el Norte, con camino de servidumbre; por el Sur y Este, con terrenos de don Gustavo Cobreros, y por Oeste, con pertenecidos del mismo caserío. Contiene una superficie de 400 metros cuadrados, de los que corresponden al solar del caserío 195 metros.

Hitzaren osagaiak *albitzu* hitza, *goi*, *-ko leku genitiboa* eta artikulua dira, beheko baserriari kontrajarria.

### Lurrak

#### Kukutzalde (*basoa*)

DJE-A, 113 01: Cucutzalde

Un monte titulado CUCUTZALDE. Confina, por el Norte y Este, con monte de don Juan Pedro de Andicochea, y por el Sur y Oeste, con terrenos y heredades de los señores Arriaga y Escauriza. Contiene una superficie de 3.770 metros cuadrados.

Esanahia: *kukutza* izen arrunta da toponimian; antza denez, bizkar itxurako lekuak izendatzeko erabili izan da (Gorrotxategi, 2012: 281)<sup>9</sup>. Eta *alde posposizioak ingurua* adierazi nahi du.

#### Kukutzakotrokea, -a (*basoa*)

DJE-A, 113 01: Cucuchecotroquea

Y otro monte llamado CUCUCHECOTROQUEA. Confina, por el Norte, Este y Oeste, con montes de don Juan José Gorostiza, y Sur, con monte de don José Luis Torres Vildósola. Contiene una superficie de 2.850 metros cuadrados.

Osagaiak: *Kukutza*, *-ko leku genitiboa*, *troka* hitza ('barranco') eta artikulua.

#### (*basoa*)

DJE-A, 113 01: un monte robledal sin nombre

Un monte robledal sin nombre; confina, por el Norte, con arroyo y el otro lado del arroyo con terrenos de don Juan Pedro Andicochea y Julita Artaraz; por el Sur, con montes de don Pedro Echevarria, don Pedro Ibarrondo y don Gustavo Cobreros; por el Este, con

<sup>9</sup> "Cf. quizá con *kukutx* V 'cresta', *kukutz* V 'cumbre', que GDiego *Dicc.Etim. 2014* y *REW 2370* deriva del lat. *cucutium* 'cabeza', y relacionado también con esp. *cocota*, *cogote*, aunque no pueden proceder estos últimos del lat. mencionado por dificultades fonéticas (Agud-Tovar\_gokhots)"



## 18 Arantzazu: nor/zer... non

montes de la señora Añibarro, y por el Oeste, con montes de don Pedro Andicoechea y don Gustavo Cobreros. Contiene una superficie de 140.620 metros cuadrados.

(lursaila)

DJE-A, 113 01: una heredad

Una heredad al Este y próxima al caserío; confina, por el Norte, con camino carretil; por el Sur, con heredad de don Gustavo Cobreros; por el Este, con monte del mismo caserío, y por el Oeste, con terrenos del señor Cobreros y una pequeña parte con camino carretil. Contiene 930 metros cuadrados.

(lursaila)

DJE-A, 113 01: una heredad

Una heredad dividida en varias piezas; confina, por el Norte y Sur, con terrenos de don Gustavo Cobreros; por el Este, con pertenecidos del caserío Albizu, y por el Oeste, con terrenos de don Juan José Ipiña y don Pedro Arrondo. Contiene una superficie de 15.700 metros cuadrados.

(lursaila)

DJE-A, 113 01: heredad

Otra heredad dividida en varias piezas; confina, por el Norte y Oeste, con monte de don Gustavo Cobreros; por el Este y Sur, con arroyo. Contiene una superficie de 2.620 metros cuadrados.

(ortua)

DJE-A, 113 01: una pequeña huerta

Una pequeña HUERTA en el frente del caserío; confina, por el Norte, con camino carretil; por el Sur, con heredad de don Gustavo Cobreros; por el Este, con el horno y antuzano anteriormente mencionados, y por el Oeste, con pertenecidos del caserío. Contiene una superficie de 206 metros cuadrados.

### Albiste historikoa

**1567** Zeberio haraneko auzokide den Martin Ugartek, Etxebarrieta deitutako lurra eta soloa errentan ematen dizkio Arantzazu elizateko auzokide den Martin Albizuri garia ereiteko eta 8 urtetarako. Solo honek dituen mugak hauek dira: alde batetik, Pedro Ugarteren lurra; bestetik, errepidea (*Perez Urraza, Albitzu auzoa... op. cit. 4*).

**1587** Martin Albizu eta M<sup>a</sup> Ortiz Albizu ezkontideen seme den Martin Albizu Hundurraga arantzazuarra eta Zeberioko Pedro (Katalina Kareagaren seme) Kareagaren arteko auzia (*Ibid.*).

**1589** Arantzazuko auzokide diren Martin Albizu eta M<sup>a</sup> Ortiz Albizu ezkontideek auzia dute Zeberioko Katalina Kareagaren seme den Pedro Kareagaren aurka. Urte berean, Martin Albizuren testamentua. Santo Tomas eleizan erosia duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du. M<sup>a</sup> Ortiz Undurraga emaztea eta lau seme-alaba uzten ditu: Martin, Juan, M<sup>a</sup> Ibanes eta Katalina Albizu Undurraga. M<sup>a</sup> Otxoa erraina dela agertzen da. Juan semeari bere nebaurrebei legitimak ordaintza agintzen dio. Testamentari M<sup>a</sup> Ortiz emaztea izendatzen du (*Ibid.*).





**1591** Arantzazuko Eleizateko auzokidea zen Maria Ortiz Hundurraga alargunduta dago, Martin Albizu bere senarra hilda baitzegoen. Arantzazuko Juan Albizuk Sautu baserriko Pedro Uriarteren eskutik, erdi irabazi eta galeran, bost abelburu hartu dituela aitortzen du (*Ibid.*).

**1592** Urriak 31. Joan Alviçu Mendietaren jaiotza. Bere guraso Joan Alviçu eta M<sup>a</sup> Ochoa Mendieta ditugu (*BEHA\_ja*).

**1595** Juan Arandia Olazar eta Maria Albizuren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Pedro Arandia Olazar eta PANTSKE Olazar gurasoek, Juan semeari Olazar baserria dotetzat ematen diote, gozamenaren erdia beraientzat gordez. Eta bestetik, Arantzazuko auzokide zen Patxi Albizuk bere arreba Mariari dotetzat 200 dukat gehi arreoa ematen dizkio (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.* 5).

**1597** Arantzazu elizateko auzokide den Juan Albizuren testamentua. Santo Tomas elizan Albizu bere baserriak duen hilobian lurperatua izatea agintzen du. Bost seme-alaba uzten ditu (*Ibid.*):

- Martin Albizu Yarza, berau bi semeren aita, Martin eta Juan.
- Juan.
- Iñigo Albizu, Madrilen bizi dena eta zirujau azterketa egin behar duena. Beronentzat, 50 dukat emotea agintzen du.
- Patxi, seme zaharrena, Albizu baserrirako oinordeko izendatzen duena.
- Maria Albizu, Olatzar auzoko Juan Arandia Olazarrekin ezkondua.

**1599** Pedro Kareaga eta M<sup>a</sup> Ibanes Kareaga ezkontideak Juan Kareagaren gurasoak dira, azken hau, M<sup>a</sup> Saez Arbildugaz ezkondua. Laurak elkarrekin Arantzazuko Patxi Albizuri Ostola gaztainadia saltzen diote 16 dukatetan. Mugak Ugarte eta Sarasola gaztainadiak ditu (*Ibid.*).

**1603** Martxoak. Pedro Albisu Mendietaren jaiotza. Bere guraso Joan Alviçu eta M<sup>a</sup> Ochoa Mendieta ditugu (*BEHA\_ja*).

**1612** Iñigo Undurragak *Baltzola* gaztainadia saltzen dio Arantzazuko auzokide den Patxi Albizuri (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.*).

**1614** Iñigo Undurraga zordun nagusia, eta Juan Gorostiza eta Juan Albizu (Patxi Albizuren semea) bermari legez, hirurek elkarrekin diru-zentsua sortzen dute eliz-kabildoaren alde, eta horretarako bakoitzak bere baserria eta ondasun guztiak hipotekatzen ditu: Undurraga, Gorostiza eta Albizu (*Ibid.*).

**1617** Orain dela bost urteko salmenta errepikatua agertzen da: Iñigo Undurragak, Baltzola inguruko gaztainadia saltzen dio Arantzazuko auzokide zen Patxi Albizuri (*Ibid.*).

**1627** Abuztuak 5. Marina Alvisua Olarraren jaiotza. Bere guraso Martin Alvisua Mendieta eta Catalina Olarra Barañano ditugu (*BEHA\_ja*).

**1627** Catalina Alvisua Olarraren jaiotza. Bere guraso Martin Alvisua Mendieta eta Catalina Olarra Barañano ditugu (*BEHA\_ja*).



## 20 Arantzazu: nor/zer... non

**1642** Katalina Albizu Olarra eta Martin Gesala (Ugarte) Uribarriren<sup>10</sup> arteko ezkontza kontratua. Alde batetik, Martin Albizu eta Katalina Olarra gurasoek Katalina alabari dotetzat Albitzu baseria eta ondasun guztiak ematen dizkiote, gozamenaren erdia beraientzat gordez. Eta bestetik, Martin Gesala Ugarte eta M<sup>a</sup> Perez Uribarri ezkontideek Martin semeari, Ugarte baserriko legitimak zirela eta, ezkontzarako dotetzat 84 dukat gehi 120 dukat abelburutan ordaintzen dizkiote (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.*).

**1646** Urriak 4. Francisca Albisu Ugarte Albisuren jaiotza. Bere guraso Martin Albisu Ugarte Uribarri eta Catalina Albisu Olarra ditugu (*BEHA\_ja*).

**1654** Abuztuak 9. Pedro Albisu Ugarte Albisuren jaiotza. Bere guraso Martin Albisu Ugarte Uribarri eta Catalina Albisu Olarra ditugu (*BEHA\_ja*).

**1657** Urriak 27. Joan Albisu Ugarte Albisuren jaiotza. Bere guraso Martin Albisu Ugarte Uribarri eta Catalina Albisu Olarra ditugu (*BEHA\_ja*).

**1660** Maiatzak 4. Maria Albisu Ugarte Albisuren jaiotza. Bere guraso Martin Albisu Ugarte Uribarri eta Catalina Albisu Olarra ditugu (*BEHA\_ja*).

**1664** Abuztuak 9. Pedro Albisu Ugarte Albisuren jaiotza. Bere guraso Martin Albisu Ugarte Uribarri eta Catalina Albisu Olarra ditugu (*BEHA\_ja*).

**1669** Juan Andres Arana Olatzarrek 50 dukat-zentsua sortzen du Martin Ugarte Albizu-ren alde (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.*).

**1683** Juan Ugarte Albizu eta Maria Aldekoa Barañanoren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Martin Ugarte Albizu eta Katalina Albizu senar-emazteek Juan semeari, dotetzat, Albitzu baseria eta bere ondasun guztiak ematen dizkiote, usufrutuaren erdia beraientzat gordez. Eta bestetik, Txomin Aldekoa Ereñoza eta Katalina Barañano ezkontideek Maria alabari 60 dukat dotetzat ematen dizkiote. Honez gain, Juan Reka Bizkarrak, Katalina amari, Barañano baserriko legitimak zirela eta, 90 dukat ematen dizkie Maria lobari, eta azkenik, Martin Urraza Solatxi osabak beste 50. Beraz, Mariak ezkontzara 200 dukat eramatzen ditu. Ondoren, ezkontza-kontratu honen transkipzio zatia (*Ibid.*):

En la Casa y Solar de Guesala de Abajo de este Valle / de Ceverio cinco días del mes de julio de mil seiscien-/ tos y ochenta y tres años, ante mí Juan de Urquiza escribano/ Real de su Magestad en todos sus reinos y señoríos,/ parecieron presentes de una parte, Martin de Ugarte/ y Albisu y Catalina de Albisu marido y/ mujer legítimos y Juan de Ugarte Albisu su/ hijo legítimo = y de la otra, Domingo de Alde-/ coa y Catalina de Barañano marido/ y mujer legítimos y María de Aldecoa/ su hija legítima y dijeron que entre/ estas partes estaban ajustados de que/ hayan de casar en uno los dichos Juan/ de Ugarte Albizu y la dicha María/ de Aldecoa = y por cuanto las car-/ gas del santo matrimonio son considera-/ bles hicieron las donaciones siguientes:/ Lo primero dijeron los dichos Martin de Ugarte/ Albisu y la dicha su mujer que donaban y dota-/ ban al dicho su hijo para el dicho casamiento/ la su casa y casería de Albisu con todos/ sus pertenecidos alhajas bastago, omenaje/ y demás, con reserva de la mitad del usu-/ fruto de todo ello por los días de la vida/ de los dichos donantes y de cualquiera de ellos,/ y más donan a los dichos casantes la/ cuarta parte del agosto de este presente año/ de cualquier género y más donan ...

10 Martin Albisu Ugarte Uribarri (*BEHA\_ja*).



**1687** Katalina Albizu Olarrak Albitzu baserrian egiten duen testamentua. Martin Ugarte Albizuren emaztea da, eta Albizu baserriak eleizan duen hilobian ehortzia izan dadin agintzen du. Hurrengo urtean, 1688an Martin Ugarte Albizu alargunaren testamentua. **Arantzazuko San Pedro Parrokiko hilobian lurperatua izatea** eskatzen du. Katalina Albizuk eta Martin Ugartek hiru seme-alaba izan zituzten (*Ibid. 8*):

- Pantsike Albizu, Juan Gorostizarekin ezkondua.
- Katalina Albizu, Jazinto Uparanekin ezkondua.
- Juan Albizu, Maria Aldekoa Barañanorekin ezkondua eta oinordeko izendatua zeukan; Martin Albizu Aldekoa dute seme.

**1686** Maiatzak 6. Joan Albisu Ugarte Aldecoaren jaiotza. Bere guraso Joan Albisu Ugarte Albisu eta Maria Aldecoa Barañano ditugu (*BEHA\_ja*).

**1688** Martin Ugarte Albizuren testamentua. **Arantzazuko San Pedro parrokan bere baserriak duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du**. Katalina Albizuren alarguna da eta hiru seme-alaba uzten ditu: Pantxike, Juan Gorostizarekin ezkondua; Katalina, Jazinto Uparanekin; eta Juan (Ugarte) Albizu, Ereñotzako Maria Aldekoa Barañanorekin ezkondua. Bi hauen semea Martin (Ugarte) Albizu Aldekoa da (*Perez Urraza, Albitzu auzoa... op. cit 8*).

**1688** Juan Albizu eta Maria Aldekoa ezkontideek 40 dukat-zentsua sortzen dute Martin Egiaren alde, eta horretarako Albitzu baseria eta euren ondasun guztiak, solo, sagasti, harizti, gaztainadi, eta abar hipotekatu behar dituzte (*Ibid.*).

**1692** Juan Ugarte Albizuk eta Juan Albizubekoak Arantzazuko Albitzu auzoko solo eta ondasunez differentziak dauzkate, eta konponketa batera heltzen dira (*Ibid.*).

**1697** Juan Ugarte Albizuk 40 dukateko ordain-agiria ematen die Juan Solatxi Ereño eta M<sup>a</sup> Juanes Urizar ezkontidei, berauek Juan Ugarteri diru hori itzuli diotelako (*Ibid.*).

**1704** Urte honetako fogerazioan, ‘**Albizu de suso**’ dugu. Juan Ugarte Albizua da ugaza-ba eta fogera osoa ordaintzen du.

**1706** Arantzazuko auzokide zen Juan Ugarte Albizuk 40 dukat-zentsua sortzen du Martin Arteagaren alde; horretarako, Albitzu eta Kareaga bere baserriak hipotekatzen ditu (*Ibid.*).

**1709** Juan Ugarte Albizuk 50 dukateko ordainagiria ematen dio Barbatxao auzoko Uriarte baserriko Tomas Gesala Uriarteri. Izan ere, beronen aitak, Juan Bautista Gesala Uriartek diruzentsua sortua baitzuen Juan Ugarte Albizuren alde (*Ibid.*).

**1709** Ugarte baserriaren jabe den Pedro Ipiña Ugartek jarraikoa dio: Albitzuko jabe den Martin Ugarte (Gesala) Uribarri bere osabak Ugartebekoa baserriaren legitimetatik 150 dukat hartu behar zituela. Eta orain honen seme den Juan Ugarte Albizu lehengusuak auzi judiziala jarri diola, eta Pedro Ipiñak ezin duenez ordaindu, zor horren prendan, *Albitzuondo* errekatxoaren ondoan duen 333 estaduko lurra eta 19 haritzondo eta 7 hultz ematen dizkio betirako Juan Ugarte Albizuri (*Ibid.*).



## 22 Arantzazu: nor/zer... non

**1716** Katalina Albizu eta Martin Ibarrondo ezkontideek 230 dukateko ordain-agiria ematen diote Juan Ugarte Albizu aitari, beraien ezkontza-kontraturako dotetzat ezarria zegoen eta (*Ibid.*).

**1729** Arantzazuko Pedro Ugarte Albizuk 50 dukateko ordainagiria ematen dio Maria Arteaga Olazar alargunari; izan ere, 1669.an, Juan Andres Arana Olatzarrek diru-zentsua sortu baitzuen Pedroren aitona zen Martin Ugarte Albizuren alde (*Ibid.* 9).

**1733** Kareaga baserriko jabetzaz, Juan Kareaga eta Pedro Albizuren arteko hitzarmen eta kontzertua. Juan Kareaga defuntuaren seme bakarra zen Arrigorriagako Juan Kareagak, Kareaga baserriko tronkari zelako eta berreskuratu nahi zuelako, pleitua ezartzen dio Arantzazuko Pedro Albizuri. Baina auziak garestiak eta luzeak zirenez gero, euren arteko konponketara heltzen dira: Pedro Albizuk epe jakin batzuetan 450 dukat emanago dizkio Juan Kareagari, eta honek uko egin behar dio Kareaga baserrirako izan dezakeen eskubideari. Sei urte beranduago, 1739.ean, Arrigorriagako auzokideak ziren Juan Kareaga eta M<sup>a</sup> Antonia Abereskieta ezkontideek 300 dukateko ordainagiria eman zioten Pedro Albizu arantzazuarrari (*Ibid.*).

**1745** Urte honetako fogerazioan, Pedro Ugarte Albisua dugu **Albisua** baserriko ugaza-ba; fogera osoa ordaintzen du.

**1753** Pedro Ugarte Albizuk 180 dukat-zentsua sortzen du Txomin eta Katalina Ugarte Elorriaga neba-arreben alde, eta horretarako Albitzugoikoa eta Kareaga baserriak, etxaguntza guztiak eta Kareaga baserriak Olabarrietako Santo Tomas Patronazgoan duen fogera hipotekatzen ditu (*Ibid.*).

**1753** Abuztuak 12. Martin Ibarrondo nagusia, Juan Madariaga nagusia eta Juan semea zeberiotarrak, eta Pedro Ugarte Albizu arantzazuarrar alde batetik, eta Juan Atxa teilagina bestetik, denon arteko konponketara heltzen dira. Arazoa honetan zetzan: Juan Atxak *Gaztiñezabalaga* herribasotik otea Ibarrondoko teilerira eramateko haien lur eta bideetatik pasatu behar zuela eta besteek galarazi egin ziotela, baina euren arteko pleituak ekiditeko, gauza hauetan gai ziren Txomin (E)rreka eta Lontzo Urraza gizon on aukeratzen dituzte. Hauek bideak ikusi eta aztertzen dituzte eta bi labekada egiteko behar adina ote, eta ez gehiago, eramatzen uzten diote, baina Juan Atxaren seme eta ondorengoeik ezin izango dute iñolaz ere eskubide hau erabiliko (*Ibid.*).

**1754** Olabarrietako Santo Tomas elizatean eta Zeberio haraneko Zubiaur auzoan, Antonia Ugarte Añibarro eta Antonio Kareaga Aranaren arteko ezkontza kontratua burutzen da. Alde batetik, Arantzazuko auzokide diren Pedro Ugarte Albizu eta Maria Añibarro ezkontideek Antonia alaba bakarrari dotetzat hurrengoa ematen diote: Arantzazuko Albitzugoikoa eta Zeberioko Kareaga baserriak, etxaguntza guztiak eta azken honek duen fogera, eurentzat usufraktuaren erdia gordez eta bikote gazteen kontura gurasoen hiletak ordaintzea. Juan Ugarte Albitzu, Pedroren aita, oraindik bizi da (*Ibid.*).

Eta beste aldetik, Arrigorriagako auzokide diren Juan Kareaga eta Marina Arana gurasoek, Antonio semeari dotetzat 800 dukat dirutan eta 200 dukat arreoa ematen dizkiote. Antonioren beste neba-arrebak hauetk dira: M<sup>a</sup> Mikaela, M<sup>a</sup> Antonia, Josefa, Marina eta Katalina Kareaga Arana, Kareaga baserrirako eskubidetik aldendua izaten direnak.



Urte berean, Arantzazuko auzokide zen Antonio Kareagak 180 dukateko diru-zentsua sortzen du Pedro Ugarte Albizu bere aitagnarrebaren alde, eta horretarako Albitzu eta Kareaga baserriak eta azken honen fogera hipotekatzen ditu.

**1754** Pedro Ugarte Albizuk 180 dukateko diru-zentsua sortzen du Txomin eta Katalina Ugarte Elorriaga nebarreben alde, eta horretarako Albitzugoikoa eta Kareaga bere baserriak, azken etxe honen fogera eta bi baserrien ondasun guztiak hipotekatzen ditu (*Ibid.*).

**1754** Albitzu baserrian bertan, Antonio Kareaga Arana eta Antonia Ugarte Albizu ezkontideek, euren ezkontza-kontratua zela eta, 303 dukateko ordain-agiria ematen diete Arrigorriagako auzokideak ziren Juan Kareaga eta Marina Arana beren gurasoei (*Ibid.*).

**1755** Txomin Erezkano Ugarte eta Katalina Ugarte Elorriaga neba-arrebek 180 dukateko ordainagiria ematen diote Antonio Kareagari, honen emazte den Antonia Ugarteren aita Pedro Ugarte Albizuk haien aldeko diru-zentsua sortu zuelako; orain, askatua gelditzen da. Bestalde, urte berean, Martin Ibarro dok 220 dukateko zentsua sortzen du Pedro Ugarte Albizuren alde, eta horretarako Ibarro dokoa baseria hipotekatzen du (*Ibid.*).

**1759** Pedro Ugarte Albizuren testamentua. **Arantzazuko Parrokian Albitzu baserriak duen hilobian lurperatua izatea agintzen du;** Maria Añibarroren senarra da eta alaba bat daukate, Antonia Ugarte Añibarro (*Ibid.*).

**1766** Albitzuko bere etxeen Pedro Ugarte Albizuk testamentua burutzen du. **Albitzu bere baserriak Arantzazuko San Pedro parrokian duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du.** Maria Añibarro zenaren alarguna da, eta alaba bakarra izan zuten, Antonia Ugarte Añibarro, Antonio Kareagaz ezkondua dagoena. Martin Ibarro loba albazea izendatzen du (*Ibid.*).

**1773** Antonio Kareaga Arana eta Maria Antonia Ugarte Albizu ezkontide arantzazuren aurkako auziaren hirugarren zatia. Arantzazuko Juan Ugarte Albizu, Maria Antoniaren aitite, testamenturik egin gabe hil zen eta auzi honetan Andres Aurrekoetxea eta emaztea azaltzen dira, besteren artean.

Juan Ugarte Albizuren ondasunen artean Albitzu eta Kareaga etxaldeak agertzen dira (JCR3633/001).

**1777** Oraingo hau, 1773ko auziaren apelazioa da (JCR1029/013).

**1785** Bizkaiko Jaurerriko Gobernuaren agindu bati erantzun emateko, urte honetan, Errege-basso, komun eta jabedunei egiten zaie bisita; euren artean, Albitzugoikoa etxaldekoei (*MONTES\_REG1\_LEG2*). Antonio Kareaga dugu etxaldearen ugazaba.

Pasaron de aquí a la casería de **Albizugoicoa**, propia de Antonio de Careaga, vecino de dho valle de Zeberio, y reconocidas sus jurisdicciones, en ellas hallaron veinte y tres arboles robres entre los cuales ay quatro corbazones, cinco baos y catorce bandas de buena calidad, distantes de sus sitios a dho camino real de Zeberio un quarto de legua buen camino, y desde dho camino real para el referido embarcadero quattro leguas.....



## 24 Arantzazu: nor/zer... non

**1794** Antonio Kareaga eta Antonia Ugarte ezkontideek zera diote: Juan Martin Kareaga Ugarte semeari, M<sup>a</sup> Manuela Arandia Rekagaz 1788. urtean ezkondu zenean, Kareaga eta Albitzu baserriak eta beren ondasun guztiak dotetzzat eman zizkiotela, 2.000 dukaten truke; eta orain, Juan Martinek milla dukat emanik, gurasoek diru horren ordain-agiria luzatzen diote semeari (Perez Urraza, *Albitzu auzoa... op. cit.*).

**1796** Urte honetako fogerazioan, Juan Martin Kareaga dugu **Albizugoicoa** baserriko ugazaba. Errentari bat bizi da bertan eta fogera osoa ordaintzen du.

**1799** Oraingo hau etxalde bakoitzaren ondasun eta emaitzen estadistika dugu (*PRO-PIOSYARB\_REG2*). Juan Martin Kareaga, Zeberioko auzoa, da ugazaba; errentari, Lazaro Egia.

Yo Lazaro de Eguia, Ynquilino de la Casa y pertenecidos de **Albizugoicoa**, propia de Juan Martin de Careaga, vecino de Ceverio, declaro bajo de juramento que rinde anualmente en dinero setenta ducados y en carbon quatrocientos cincuenta reales. Son ..... 1220

**1825** *Censo de Policía* delakoaren garaian, **Albisu** baserrian bizi direnak: Domingo Egia, 36 urte, zeberiarra, Arantzazun 32 urte daramatzana; eta Nikolasa Zaldibar, Legutiarra, 40 urtekoa, 10 urte Arantzazun daramatzana. Eurekin, euren seme Juan Antonio, Arantzazun jaioa 1816-11-16an (*BEHA-ja*). 1818-12-29an, euren bigarren seme Thomas jaioko da (*BEHA-ja*).

1814-05-11n, Zeberioko Santo Tomas eleizan Domingo Egia Basoa eta Nikolasa Zaldibar Etxebarria ezkondu ziren (*BEHA-ez*); itxura guztiengabera, gure Domingo eta Nikolasa hauek.

**1913** Ekainak 17. Juan Kasimiro Añibarro Goxenola eta Maxima Kareaga Aurrekoetxea ezkontideek euren seme Mateo Añibarro Kareagari ematen diote Albitzugoikoa etxaldea (*DJE-A, 113 01*).

Don Mateo Añibarro y Careaga, casado con doña Josefa Aldazabal Gurtubay, ambos mayores de edad, labradores y vecinos de Aránzazu y luego ella de Ceberio, adquirió esta finca por herencia de sus padres don Juan Casimiro Añibarro y Gogénola y doña Máxima Careaga y Aurrecochea<sup>11</sup> y de su hermana doña Miguela o Micaela Añibarro y Careaga, según consta de escritura otorgada en Bilbao y ante el notario de la misma don Isidro de Erquiaga y Barbarías, con fecha 17 de junio de 1913, la cual se acompaña y surte los efectos del parráfo tercero del artículo 20 de la ley, y toda vez que esta finca no se hallaba inscrita a favor de nadie.

**1945** Irailak 11. Mateo Añibarro 1923ko urtarrilaren 12an hil zen Arantzazun, testamenturik egin gabe; bere alaba Maria Añibarro da oinordeko izendatua. Maria hau Lukas Añibarro Aiestarekin zegoen ezkondua. Albitzugoikoa, beraz, Mariaren izenean inskrabatzen da (*DJE-A, 113 01*). Gaur egun ere, Añibarrotarren eskuetan dago jabetza.

**2004** Urtarrilak 29. Egun honetako dataz, finka hau Bilboko Jabego Erregistrorra aldatzen da, dagoeneko Zeberioko herri jurisdikzioan dagoelako (*DJE-A, 113 01*).

11 Careaga Aurrecochea-tarrak Bizkerre baserrikoak ere badira.



### **Genealogia**

#### **Perez Urraza, auzokideen zerrendak...**

1565: Juan Albizu & ? Yarza (64 or.)

Patxi Albizu Yarza

Juan Albizu Yarza

Martin Albizu Yarza

Iñigo Albizu Yarza zirujau

Maria Albizu Yarza & 1595 Pº (Andres) Arandia

1600: Martin Albizu & Mª Ortiz Huandurraga (88 or.)

Patxi Albizu Undurraga

1630: Martin Gesala (Ugarte) (Goti) Uribarri & 1642 Katalina Albizu Olarra (109 or)

Juan Ugarte Albizu

1670: Martin (Gesala) Ugarte Uribarri & 1642 Katalina Albizu Olarra (132 or.)

Pantxike Ugarte Albizu, 1646

Katalina Ugarte Albizu, 1650

Pedro Ugarte Albizu, 1654

Juan Ugarte Albizu, 1657

Martin Ugarte Albizu, 1660

Maria Ugarte Albizu, 1664

1700-1710: Juan Ugarte Albizu, 1657 & 1683 Maria Aldekoa Barañano (162 or.)

Martin Ugarte (Albizu) Aldekoa, 1684

Juan Ugarte (Albizu) Aldekoa, 1686

Katalina Ugarte (Albizu) Aldekoa, 1688

Maria Ugarte (Albizu) Aldekoa, 1691

Pedro Ugarte (Albizu) Aldekoa

1745-50: Pedro Ugarte Albizu Aldekoa, jabe & Maria Añibarro Uriarte (193 or.)

Antonia Ugarte Añibarro, 1738

1795: Jabe, Juan Martin Kareaga (224 or.)

Tomas Ibarrondo Etxebarri (Arantzazu) & Mª Antonia Rio Landajo, 1724

Tomas Ibarrondo Rio, 1748

Mª Antonia Ibarrondo Rio, 1750

Josefa Ibarrondo Rio

Joakin Ibarrondo Rio, 1757

Miguel Ibarrondo Rio

1826: Txomin Egia Basoa, 1789 & Nikolasa Zaldibar

Geroazin, 1786 (Legutio) (253 or.)

Juan Antonio Egia Zaldibar, 1816

1870: Jose Mª Arzuaga Artiñano, 1843 (Zeberio)

& Manuela Larrea Egia, 1848 (Arantzazu) (291 or.)

Pedro Arzuaga Larrea, 1875

Rosa Arzuaga Larrea, 1881

1900: Jose Mª Arzuaga Artiñano, 1841 (Zeberio)

& Manuela Larrea Egia, 1848 (Arantzazu) (331 or.)

Margarita Arzuaga Larrea, 1883

Ramona Arzuaga Larrea, 1885

1924: Manuel Arzuaga Larrea, 1878 & Juana Artiñano

Uribasterra, 1885 (Zeberio) (375 or.)

Maria Arzuaga Artiñano, 1908

Manuela Arzuaga Artiñano, 1910

Manuel Arzuaga Artiñano, 1912

Txomin Arzuaga Artiñano, 1919

Lorenza Arzuaga Artiñano, 1922

Jose Maria Arzuaga Artiñano, 1841, aite



*Manuel Arzuaga Larrea eta Juana Artiñano Uribasterra, ezkon zirenean  
(Atutxa 1996: 3:2)*





## 26 Arantzazu: nor/zer... non

### Leitoki

(Baserria)

*Agiri bilketa:*

Fog. 1796: Isasi-erreca

Fog. 1799: Ysasi reca

*PROPIOSYARB\_REG\_2* 1799: Ysasi-erreca

“Yo, Manuel de Esiri, dueño de la Cassa nueba de Ysasi-erreca,...”

DJE-A, 06 01: Leitoqui

El caserío rústico titulado Leitoqui, señalado con el número 18, radicante en el distrito Sur de la anteiglesia de Aránzazu; comprende, con inclusión de la tejavana y su horno, 98 estados cuadrados superficiales de planta solar. Lindante, por Sur y Oeste, con el río; por Este, con camino carril público; y por Norte, con monte arbolar de la casería Alvizu.



Oharra: Leitoki Durangoko Jabego Erregistroko Arantzazuko Liburuko 6 finka dugu, 1864ko abuztuaren 22an erregistratua. Kontua da baserri honi dagozkion lur batzuk Zeberioko udalerrian daudela kokatuak, Zeberion inskribatuak beraz. Honela diosku Perez Urrazak (*Zeberio Hergoiengo ondare kulturala*, 2007: 6):

...etxea, ortua, mintegi bi, *Albizuondoeta* soloa, *Meaza* basoa eta Ibarrondo-errekan labea, telleria, tejabana eta larrainak...

Osagaiak *lei* eta *toki* hitz ezagunak dira: izotza dagoen-egiten duen tokia.

### Lurrak

**Albitzuondo** (aurkintza)

*Ibid.*: Albizuondo

... Arantzazuko lur eremuan, Albizuondo deitutako lekuan...

**Albitzuondoerreka (erreka)**

DJE-A, 06 01: Alvizuondo erreca

... por Sur, Suroeste y Sudeste, con el río llamado Alvizuondo erreca, que es límite de la jurisdicción de Aránzazu con Ceverio.

Osagaiak *albitzu* izena, *ondo* posposizioa eta *erreka* izena ditugu.

**Ortua (ortua)**

DJE-A, 06 01: huerta

Una HUERTA que está contigua a él, que comprende 175 estados cuadrados superficiales de cabida, confinante, por Norte, Noroeste y Nordeste, con monte de la casería de Alvizua; por Sur, Suroeste y Sudeste con el río llamado Alvizuondo erreca, que es límite de la jurisdicción de Aránzazu con Ceverio.

**Albiste historikoa**

**1783** Arantzazuko lurretan baserria eraiki zuten egileen aurrekari lez, 1783 urteria jo behar dugu, eta urte honetan, Zubibarria olerako lurrazpiko tunela eraikitzen ari ziren Juan Añibarro eta Juan Elizeri biek elkarrekin, Manuel Elizeri eta Tomas Idirin argin-maisuen eskuetan uzten dute, tunela erabat zulatzeko oso gitxi falta delarik. Juan eta Manuel anaiak direla agertzen da. Hurrengo urtean, 1784an, Arantzazuko auzakide den Juan Elizerik, 1421 erreal eta 21 marabeditako ordainagiria ematen dio Jose Ramon Aldamari, hark Zubibarria kaltzeko tunela amaitua duelako (*Ibid. 6*).

**1792** Manuel Elizeri arantzazuarrta eta Teresa Madariaga ezkontideak Olabarriko erratan maizter egon ziren, berau Patxi Xabier Gesala abadearena zena, eta 1.444 erreal 6 hilabetetan itzuliko diotela behartzen dute euren burua; izan ere, haien, Arantzazuko lur eremuan, *Albitzuondo* deitutako lekuaren, planta berriko etxea eraikitzen ari dira eta kare, are, harri eta egurra ordaintzeko behar dute. Etxe horri, aurrerantzean, **Leitoki** deituko zaio (*Ibid.*).

**1796** Urte honetako fogerazioan **Isasi erreca** agertzen zaigu. Manuel Lexiri da ugazaba; sei dukat urteko ematen ditu eta ez du fogerarik ordaintzen.

**1799** Urte honetako fogerazio berrian “la casa de **YSASI RECA**” dugu, Manuel Elexirirena. Sei dukat urteko emaitza du eta fogera laurdena ordaintzen du.

**1799** Uztailak 10. Oraingo hau etxalde bakoitzaren ondasun eta emaitzen estadistika dugu (*PROPIOSYARB\_REG2*). Manuel E(l)e)siri dugu etxe berri honetako ugazaba.

Yo Manuel de Esiri, dueño de la **Casa nueba de Ysasi-erreca**, declaro bajo de juramento que rinde anualmente en dinero treinta y ocho ducados quatrocientos y diez y ocho reales ..... 0418

**1844** Maiatzak 1. Donazioa eta ezkontza-hitzarmena, Santo Tomas Olabarrieta, Markos Etxeandia notarioaren aurrean gauzatua. Leitoki eta dagozkion lur guztiak Juan



## 28 Arantzazu: nor/zer... non

Limako Aldamarenak ziren; bere emazte Maria Teresa Ormaza alargunak euren alaba den Maria Ruperta Aldama Ormazari ematen dizkio Juan Morota Gizaburuagarekin adostu duen ezkontza dela eta (*DJE-A, 6 01*).

**1864** Abuztuak 22. M<sup>a</sup> Ruperta Aldama Ormazaren izenean inskribatzen da Leitoki Jabetza Erregistroan (*DJE-A, 6 01*).

**1864** Urriak 5. M<sup>a</sup> Ruperta Aldama Ormazak Leitokiko ondasunak J M<sup>a</sup> Balbuenari saltzen dizkio (*DJE-A, 6 02*).

**1867** Abenduak 23. Jose Maria Balbuenak Martin Egaña Iriondo harginari saltzen dio Leitoki (*DJE-A, 6 03*).

**1869** Abuztuak 26. Martin Egaña Iriondok Manuel Maria Olabarria Abrisketari saltzen dio Leitoki (*DJE-A, 6 04*).

**1906** Abuztuak 26. Agustina Zuaznabar Urezandirekin ezkondua zen Manuel M<sup>a</sup> Olabarria hau 1905ean hiltzen da; urte honetan Agustina Zuaznabarren aldeko esleipena dugu (*DJE-A, 6 05*).

**1921** Martxoak 19. Agustina Zuaznabar 1920an hiltzen da; Leitokiko ondasunen oinordeko Leokadio eta M<sup>a</sup> Olabarria Zuazbanar seme-alaba eta Jose M<sup>a</sup> Olabarria Martinez de Arrivas iloba izendatzen ditu, eta ondorioz, beste ondasun batzuen artean, Leitoki baseria azken honen izenean inskribatzen da (*DJE-A, 6 06*).

**1947** Jose M<sup>a</sup> Olabarria Martinezek, Leitoki etxaldea Iesus Basañez Isusi eta Polikarpo Femández Berriori, erdibana, saltzen die (*DJE-A, 6 07*); bi hauek, Vidrieras de Llodio S.A. entrepresari (Isidoro Delclaux Arostegi Presidente zelarik) (*DJE-A, 6 08*).

**1957** Urriak 30. Vidrieras de LLodio-k Bilbon bizi diren M<sup>a</sup> Mercedes Artabe Ellakuria eta Felix Gandarias Urkijo ezkontideei saltzen die (*DJE-A, 6 09*). Harrezkero, euren ondorengoen eskuetan dago finka hau.

### Genealogia

#### Perez Urraza, auzokideen zerrendak...

Leitoki (1792an eraikia)

Manuel Elizeri Urkiza, 1749, hargin (Zubibarriako olarako tunelaren egilea)  
& Teresa Madariaga Aranguren

Jazinto Elizeri Madariaga, 1780

Pantxike Elizeri Madariaga, 1782

M<sup>a</sup> Teresa Elizeri Madariaga, 1784

Manuel Elizeri Madariaga, 1787

Juan Antonio Elizeri Madariaga, 1789

Pedro Elizeri Madariaga, 1790

1960 Santos Goti & Katalina Larrinaga

Isabel Goti Larrinaga & Iñazio Gardeazabal

Iñaki Gardeazabal Goti